

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Patxi Maiza Urrestarazu*

*Ordizia,  
Gipuzkoa (1933)*

Aurkibidea



## Biografia



1933an jaio zen Ordizian. Aita Ataungoa eta ama Ordiziakoa zituen eta 6 anai-arrebako familia. Eskolan Ordiziako mojetan ibili zen jaunartzea egin arte eta horren ondoren eskola nazionalen. Ordiziako "arte eta lanbide-eskolan" mekanika ikasten aritu zen. 1948an CAF lantegian mekanika muntatzaile lanetan hasi zen, eta ondorengo urteak Lazkaoko Pingon lantegian egin zituen. Soldadutza Donostian egin zuen urte eta erdiz 1954an. 34 urterekin ezkondu zen Ataunen eta bi seme-ren aita da.

## Zintak

### ORD-037

- **Proiektua:** Ordiziako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2008-11-07
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Otegi, Aitziber
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

### ORD-038

- **Proiektua:** Ordiziako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2008-11-07
- **Iraupena:** 22 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Eider

## Pasarteak

### 1. Ordizian jaioa 1933an

- **Erref:** ORD-037/001
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena:**

Ordizian jaio zen 1933an. Ama Ordiziakoa eta aita Ataungoa zituen, eta sei senideko familia zuen. Eskolan mojetan ibili zen jaunartzea egin arte eta ondoren eskola nazionaletan ibili zen 12 urtera arte.

**Transkripzioa**

-Hasteko izena eta abizena.  
-Ni Patxi Maiza Urrestarazu.  
-Eta noiz jaio zinen?  
-Mila ta beratzirehun ta hogeta hamahiruko maiatzek hogeita baten.  
-Hemen Ordizin?  
-Bai.  
-Kale etxean?  
-Kalen, kalen. Aitte nik Ataungoa non, baserrikoa baiño ama Ordizikoa. Gero ba aitten aldetik danak Ataungoak nittun eta aman aldetik non aittona Ataungoa eta amona Gaintzekoa.  
-Zenbat anai-arreba?  
-Gu? Sei.  
-Eta eskolara nora joan zinen?  
-Eskolaa?  
-Bai.  
-Ba, bueno ni hasera baten hemen zeren monjak ume txikik eta jasotzen zittuenak, bueno, hartzen zittuenak, eta ni ibilli nitzen ba monjatan. Eta ni monjatan ibilli nitzen ba komunioa eñ arte. Garai hartan eitten zien bi komunio, bat txikie ta bestea haundie, eta nik uste det ein nola zazpi urtekin komunio txikie. Eta hura ia bukau [...] zanen gero zeren ba "Escuelas Nacionales" esaten ziona ordun garai hartan, nola dana erderaz eta zea zan ba gero handik pasau nitzen eskuela nazionaletaa.  
-Hori ere Ordizin?  
-Ordizin. Eta gero bi azkeneko urtek, hori hamabi urte arte.

**2. Mojetan debekatua euskaraz hitz egitea**

- **Erref:** ORD-037/003
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:03:57. **Bukatu:** 00:04:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

**Laburpena:**

Eskola nazionaletan amaitu zuenean aitaren bidez Caf lantegian hasi zen lanean. Mojetan ikasi zuenean mojak erdaldunak ziren, debekatua zuten euskaraz egitea.

**Transkripzioa**

-Hori bukatu nunen ba [...] eskolea, ba bueno, nere aittek CAFen lana eitten zun eta ordun ba eskola izaten zan bidea esan dezagun ba zuzenena CAFen sartzeko gazte batzuk. Eta bueno, sartu nitzen han CAFen eta han egon nitzen beste bi urten.  
-Esan dezu eskolan mojetan ibili zinela. Monjak zer ziren, hemengoak?  
-Bai, hemengok, Madres de la Caridad. Bai.

-Ez ziren kanpotarrak?  
-Ez, ez, hemengok.  
-Erdaldunak izango ziren.  
-Danak erdeldunak. Bueno, bazeren euskaldunak baiña dana erdera ematen ziguen. Ordun etzan hitz bait eitten euskeraz. Batipat esango dizut bat [gale einda?] zeon, etzan kalen hitzik eitteik, eitten genuna etxen, nik nola gurasok euskaldunak nittun. Eta [...] gero lagun arten kuadrillan bagiñuzten bat, bi erdaldunek. Gaiñetiko danak hemengok giñen, hemen jaiotakok eta euskaldunek. Guk euskeraz eiten genun.

### 3. 'Escuela de artes y oficios'en, mekanika ikasten

- **Erref:** ORD-037/005
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:07:15. **Bukatu:** 00:10:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

#### Laburpena:

<p>Ordiziako <em>Escuela de artes y oficios</em>en ibili zen mekaniko ikasten eta ondoren ofizial aproba egin zuen CAF lantegian. Mojetan zebilenean eurek ematen zieten dotrina eta astean egun batean elizara joan eta taldeetan banatuta bilerak egiten zituzten 14 urtera arte. Luistarren kongregazioan egon zen; kongregazioaren inguruko azalpenak.</p>

#### Transkripzioa

-Eskolan ze ikasten zenuten?  
-Bueno, EGB esaten da hori. Eta gero ba CAFen ein genun gero ba profesionaltasun pixkat bezela. Eta gero harezaz gain gero ibilli naiz ni urte askon eskolan hemen, Ordizin zeon "Escuela de Artes y Oficios". Eta ordun ba hemen ze lantegi hartzen zendun. Nik porrejemplo ba mekanika hartu nun eta ikasi nun ba mekanikako gauzak, ezta. Hasiara baten hasi nitzen dibujoa ikasten. Dibujoa ikasten egon nitzen lau urten, eta gero lau urte pasau nituenen egon nitzen ba beste bi urten mekanika ikasten. Eta hortikan ba CAFen ofizialtasune, ofizial, [...] prueba bat examiñe gaur esaten dan bezela; eta hala, ta besteik ez.  
-Eskolan monjetan eta horietan dotriña eta ikasten zenuten?  
-Bai. Dotriña izan zan bueno, berezie.  
-Zeiñek ematen zuen dotriña, apaizak edo monjak?  
-Ez, ez, monjak, monjak. Gero gertatzen zana zan, monjatan egon giñen bittarten ere baita, ezta, zeatio ordun katekistak'e bazeren. Eta ematen ziguten elizan, monjak ematen zigun dotriña, errezok ikasten eta gauza horik danak, ezta? Dotriña alderdi hortatio. Eta gero genduzken katekistak parrokok eta genduken asten egun bat ordubete juten giñen eliza. Eta ordun taldek zeren, eta talde bat genduken, gu geunden Milagrosan kapilla baten da han egoten giñen, ba ezta, dozenan bat lagun hola ia hamalau urte bete arte. Behiñ lanen hasi giñen ezkeroz eta gero ba lanen hasi giñen garairako ia ba ordun zeren Cofradías, de Las Hijas de María y San Luiz Gonzaga, Luistarrak. Eta gero ba bide hortan ibilli giñen...  
-Eta hori zer izaten zan Luistarrak eta Mariatarrak. Ze eginkizun edo zer eukitzen zenden?

-Bai, bai, genduzken, billera batzuk izaten giñuzen; ordun geneuzken egun batzuk berezik, esate baterako, "todos los primeros viernes de mes había que ir a comulgar". Jun behar zan jaune hartzea. Eta're baita gero beste egun ospetsu batzuk bazien, San Luis Egunen zintakin, medallakin eliza juten baziñen hura jarri behar zendun, prozesion eta zera esaten zizuen; garai hartan oso zea zan hemen, ohitture haundie zen prozesiok eitteko. Elizan izaten bazan eliz-funtzio bat ba halako egune baldin bazan ba Corpus Egune, San Pedro Egune, Pilarika Egune, San Jose Egune eta holako festa batzuk. Eta ordun ba danok juten giñen prozesion, danok zinta bat medailla zintzilika gendula eta hola.

-Txintxo-txintxo.

-Txintxo-txintxo.

#### 4. Montadore lanetan Caf-en

- **Erref:** ORD-037/006
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:10:25. **Bukatu:** 00:13:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

##### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Goierriko lantegiak

##### Laburpena:

1948an hasi zen Caf lantegian mekaniko montadore karguan; lantegian bertan zuten eskola. Maisuarekin gertatutako pasadizoa kontatzen du.

##### Transkripzioa

- Eta orduan lanean CAFen hasi ziñen?

- Bai. Ni hasi [nitzen] CAFen mila beratzirehun eta berrogeita zortzin. Eta bueno, CAFen hasi nitzen lanen...

- Zer lan egiten zenuen?

- Ni nitzen "mecánico montador". Eta ordun ba sartu nintzen eta ordun ba jartzen giñuzten lantoki baten ba kuadrilla batekin. Eta lau urte pasau ta ordun eitten ziguen ba oain esamiña esaten dana, prueba bat. Ta ordun ba porejenplo Batxillera bukatzekon azkeneko urtea nola [azaltzen dan] ezta?, ba igual, eitten zuen prueba bat eta ondo ateatzen bazenun igotzen ziñuzten "a oficial". Bittarten zeren aprendiz, "primer año, segundo año, tercer año y cuarto año. En el cuarto, osea" laugarrenen hori eitten ziguen.

- Eta aurreko lau urtetan bazenuten maisuren bat erakusten?

- Bai, genduken han maixu bat eta harek'e erakusten zizkigun gauzak.

Asko ez, e, zeatik ez zeuken astiik zeatio nola produkzio haundie ein behar zan, eta ordun ba produkzion ai ziñen bittarten [...], eta gero bai igual esaten zizun joño, hau hola eitten dek edo hau hola eitten dek, edo hau hola ein dek edo ez dek ein edo holako zera batzuk. Baiño gauza haundiik ez. Batipait ba zuk bazeukezun zurekin zana arduradun kuadrillakoa, ba hura ia zan "oficial de primera" holako bat eta harek ia planok eta gauzak eta. Baiño nik oso ona euki non eta kejaik ez dauket. Baiño zan zelebrea. Zan zelebrea zeatio bazeren batzuk, ni akordatzen naiz egun baten, ez zan ni ai nintzen lana, ta jun nitzen beste lantoki batea beste ofizial jefe horrek ainduta. Ta gizon zeon plano bati beira ta ni jarri nintzen beira, ta hartu zon plano hori eta raaa!, bildu zon eta kendu zon. "Tú qué te crees -esan zian- que yo estoy para que tu estés viendo mi plano?"; "Y qué tiene que ver yo

vea el plano que está aquí?”. “Ja!, para eso hay que aprender”, esan zin. Eta ordun holakok bazien. Erakutsi baldin bazekien, gauza haundik ez zekien, baiño baldin bazekien’e erakutsi nahi ez zuenak erakutsi. Bai, oso elkorrak zien alderdi hortatio; batzuk, e!, ez danak, e. Batzuk, alegie, bestaldekoak ziela ezautzeko gauzak eta esaten zizuen. Ba hori hola ein behar dik. Beste batzuk zero.

## 5. 10 ordu eta erdian, 5,25 pezetako soldata

- **Erref:** ORD-037/007
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:13:00. **Bukatu:** 00:15:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

### Laburpena:

10 ordu eta erdian aritzen zen lanean. Txapa bat ematen zioten zenbaki batekin eta hura errebisatzen zieten lanera zein joan zen jakiteko. 5 pezeta eta 25 zentimoko soldata zuen eta amari entregatzen zion; gero amak astebururako ematen zien dirua.

### Transkripzioa

-Zenbat ordutako lana?

-Bueno, ni hasi nitzenen garai hartan eitten zan hamar ordu. Hamar ordu hoik etzien ofizialak. Zan ba zortzi ordu. Baiña ni akordatzen naiz goizeko zortzietan jun porterie esaten dien hortaa eta han bazeon gizon bat zai ta harek zatitu giñuzen batzuk toki batea eta beste batzuk bestea ta ni ba montajea etorri nitzen, eta bueno, egun hortan bertan maixuk, esandizudana, bestek erakusten zon horrek eta esan zin: “Bueno, hemen hamar orduko lanetan ai gaittuk, hamar ordu terdi, eta ordun illuntzen zazpiterdik arte lana ein beharra dao.” Eta ordun ba ematen ziguen, ba jakitten jun giñen, hola oaiñ txanpona nola dan, ba bi euroko tamaiñakoa hola izango zan, txapa bat metalezkoa borobille, nere zenbakikin, nik neuken 662 numeroa. Hori jartzen gendun toki baten, “txaperoa” esaten zitzaion hari, eta gero jutun zan gizon bat libreta batekin goizen zein jun zien lanea ta ta-ta, ta-ta apuntatzen.

-Ze soldata eukitzen zenuten?

-Soldata? Joe, geittuko zea “estupefaciente”.

-Harrituta?

-Bai. Bost pezta eta hogeita bost zentimo zortzi ordun.

-Eta ezertarako ailegatzen zan horrekin?

-Bueno, garai hartan ba nik amai ekartzen nion asteburue lanean pasata gero, deskuentok eitten zizuen ordun’e, eta hogeita hamabost pezta. Zerbait ailegatu? Ba bai, ailegatuko zan, zeatio ordun bizie zan erabateko-erabateko-erabateko desberdiñe gaur(koa)kin. Ze esangoizut nik, ba baxoerdi bat porejenplo gizon bat jutun bazan tabernaa ba bi zentimo edo hola balioko zittun.

-Dirua irabazten zenuena entregatu behar izaten zenuen?

-Ni porejenplo soldauskara jun arte eta soldauskatik etorri arte nik irabazi nittun pezta guzik amai entregatzen nion eta ni bezela ordun garai hartan. Eta gero asteburun amak emango ziun zerbait, o zinea o futbol partidue ikusteko o bueno. Eta bestela jutun bagiñen frontoia pelotan jolastea

holakon batea, ba handik etortzen bagin, ordun zeren hemen bi enpresa gaseosak eta limonadak eta egitten zittuenak, eta hautza juten gin, botellla batzuk zien, behatzakin zapaldu, bola bat zeuken.

-Sifoia?

-Ez, gaseosea zan, gaseosa.

-Kanika moduko bat?

-Bai, kanika moduko batekin, eta hura edaten genun eta "a casa".

## 6. Lokomotore, autobus eta bagoiak egiten

- **Erref:** ORD-037/008
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:15:50. **Bukatu:** 00:20:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

### Laburpena:

<p>Caf-en lokomotoretan, lantegietako makinak konpontzen etab. aritu zen. Autobus eta tren bagoiak egiten zituzten kanpora saltzeko. Lokomotora ezberdinak aipatzen ditu. Soldadutzatik bueltatu zenean krisi garaia tokatu eta lantegia utzi zueneko kontakatu du.</p>

### Transkripzioa

<p>- CAFen zer lan egiten zenuen? - Bueno ba, ni aittu nitzen lantegi askotan. Lehenbizi jardun nitzen, aittu nitzen lokomotoratan, lokomotora haundi horitan. Gero ibilli gi&ntilde;en ba taller batzutan ere baita, makinak zeren ba porejenplo hogeita hamar makina ibiltzen zien danak motor batekin, ordun jartzen zan Jesukriston motor haundi bat eta danak zeuken trasmisio batzuk eta ordun hotsa izaten zan bai&ntilde;o-bai&ntilde;o izugarrie. Eta ibilli gi&ntilde;en han bolada baten makina horik zeaten, apartatzen. Oseake ordun bakoitzei bere motorra jarri ta bere adaptazio bat. Ordun gertatzen zana zan aberin bat baldin bazeon hogeita hamar makinak geldik gelditzen zien. [...]. Urtebeten bat. Eta gero hura bukatu zanen berriz&rsquo;e ba tallerren aitu [...] ta aitzen gi&ntilde;en ba danetio, ni aitzen nitzen autobusek ein gi&ntilde;uzen bolara baten, bagoiak eitten zien bai&ntilde;o ni bagoietan enintzen behi&ntilde;&rsquo;e ibilli. Gero eitten gi&ntilde;utzen beste tren batzuk, esate baterako jendea juten dan bagoietakok. Holakoetan ibilli nitzen. - Autobusak ere egiten zenituzten? - Bai, egin gi&ntilde;utzen, bi pisuko autobusak. - Eta kanporako egiten zenituzten? - Inlaterraako. Ein gi&ntilde;utzen, ez zan sail haundie, ez dakit ba nik, ehun da berrogeita hamar hola ein zien, han ibilli nitzen. Eta gero ba bat bukatzen zenunen lana eskatzen zenun eta bialtzen zi&ntilde;usten ba beste leku batea beste bat eitte-ta. Azkenen bukatu nun ere baita lokomorak eiten. Haseran genduzkenak zien suizok, Brown Boveri zan markea, eta azkena bukatu nuenak zien frantsesak, Batignolles-Ch&acirc;tillon. Bai, han neuken kuadrillea, ia ofiziala nitzen, "de segunda", eta, osea, ordun neon ba nazkauta. Neon nazkauta zeatio ni soldauskatik etorri nitzenen sortu zan Aristraingo fabrikea eta hortik ni etorri nitzenen ba gazte gehienak alde ein zuen. Nola gutxi irabazten zan. Eta ordun geittu nintzen da halako ta halako? Ta alde ein zien, alde ein zien, jun dittuk bata batea eta bestea bestea eta hola. Eta klaro, nik ordun ba, geldittu zan jende zaharra gehiena eta ordun ba gaztek ez gi&ntilde;en asko eta ni jarri nittuen, kuadrilla bat

ekarri zien danak zaharrak eta ez zekien ezerre. Analfabetok zien, lanik ez zien eitten, ez zekien. Ta garai hartan ba zer zan? Ba ordun bazeon hor maixu bat zana berezie oso, Unanue, eta harek influentzie haundie zeuken, eta orduan ba nik ez dakit oparin batzuk ematen zien edo zer, bai&ntilde;o jendea sartzen zon edozein, bere gustokoa baldin bazan. &ldquo;Eta hi, honek ez zekik ezer eiten&rdquo;. &ldquo;Ez zeok ba besteik, ez zeok ba besteik&rdquo;. Eta azkenen nazkau nitzen zeatio jende horrek urte asko zeamazkin lanen eta nik neuzken alde ein nunen hamalau launekin, ni nitzen arduradun, ni nitzen &ldquo;jefe de grupo&rdquo; [...], eta ordun ba esan nien alde ein behar nula ta. Ordun gai&ntilde;ea krisis bat zan, hori zan "el a&ntilde;o sesenta y uno". Nik hogeita zortzi urte neuzken, eta krisis bat zeon lanana gai&ntilde;ea, e, eta jendei dirue ematen zien jutegatio, hogeita bost milla pezta. Eta ordun nik esan nion ba, nere maixue zanai esan nion. &ldquo;Bueno hi, Jose Kruz -Altuna-, bueno, hau pentsau det eta alde ein behar diat&rdquo;. &ldquo;Nora hoa? Eta halako... &ldquo;Jo!, Ez nak izurrau hi, la hostia&rdquo;; hola hasi zaten eta. Gero eon nitzen Gillermokin. Etorri zien berriz&rsquo;e bi maixu eta esan zien: &ldquo;Jo, hi, eske hikin pixkat hau ta hau eon gaittuk eta lasai egon hai, oain eingo dizkiau guk igotzeko bidek eta abar eta&rdquo;. Esan nion: &ldquo;Oain arte denpora euki dezue eta ikusi nazue, eta zuek badakizue nola ibili naizen&rdquo;. Eta bueno, &ldquo;etxoin zak ba, egongo gaittuk jefekin&rdquo;. Etorri zan ingeniero bat eta jefe taillerra zana, Arana, ta haiek etaa zizkidaten zea batzuk, &ldquo;sabes desarrollar esto, tal, tal? &rdquo; &ldquo;Eso desarrollar? Eso ya, llevo ya catorce a&ntilde;os, eso ya hace... tantos a&ntilde;os&rdquo;. &ldquo;Qu&eacute; quieres, expl&iacute;came&rdquo; &ldquo;Pues esto es esto y esto, esto es la secci&oaacute;n vertical, esto es un trazado de tal y lo otro, esto es la capota...&rdquo;. &ldquo;Bueno-bueno, no te vayas, e, espera un poco&rdquo;,, esan zian, eta &ldquo;no, ya estoy decidido y lo que hasta ahora no habeis hecho ya no vais a hacer&rdquo;. Eta alde ein nun.</p>

## 7. Lazkaoko garabi lantegian

- **Erref:** ORD-037/009
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:20:30. **Bukatu:** 00:22:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

### Laburpena:

Caf utzi ondoren Lazkaoko Comebasa garabi lantegira joan zen; hango kontuak kontaktzen ditu. Ogia egiteko makinak, igogailuak, etab. egin zituen.

### Transkripzioa

Eta hortik jun nitzen ba Lazkaon gruak [...], ordun zan Comevasa. Eta Comevasa hortan genduken eo zeuken hartuta lantegi bat ia, zeatik horko nausi bat zan sozia "Fundiciones Echeverría", eta ein zuen horik lantegi bat hemen haundie, zeatik ein zuen enpresa bat Badajozen, "Forjas y Aceros del Guadiana", eta ordun hemengo tailler hortan ein giñuzen harutzako lantegi guzik. Osea ke estructures metalikok, makinak, itteko modue zeon gauza guzi-guzie. Hor ibilli giñen pare bat urten hola hori eitten, eta gero ein giñuzten ere baita, bueno, ein giñuzten ez, ein nittun, zeatik bakar-bakarrik ibilli nitzen eta neuk ein nittun haiek; ogie eitteko

makinak, osea, formea eittekoa. Masea bota eta ogie eitten zan. Lehen panadero lana eskuz, eta zan panaderon lantegi txarrena, gehiena nekatzen ziena; eta ein giñutzen hoitako batzuk. Eta bitarten ba zebiltzen ba zerbait billatzeko zea hobexeo, produktu hobegoa, eta bueno ba Frantzik ekarri zuen grua, grua torre hok, obratan ibiltzen dienak, eta gu izan giñen Espainian lenbiziko gruak eiten hasi giñenak. Eta bueno, gero hor hasi giñen gruak eitten; eitten giñuzen gero gruak, montakargak, aszensorek obrakok, eta gero ere baita ormigonerak, dumperrak, ba esate baterako kasi produkto gehienak garai hartan ibiltzen zana obratan. Eta hor bukatu det nere bizie. Gero enkargatu ein nittuen, jefe taillerra naiz ta jubilatuta arte ta hola izan da nere bizie.

## 8. Soldadutzan, Donostian eta Burgosen

- **Erref:** ORD-037/010
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:22:18. **Bukatu:** 00:26:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

### Laburpena:

1954an Donostiara joan zen soldadutza egitera. Orio eta Aia bideko kanpamentuan egon zen, eta urte eta erdi egin zuen bertan. Kuarteleko tailerrean mekaniko lanetan, eta ondoren militarrei erakusten aritu zen. Burgosen egon zen maniobra militarrek egiten; orduko pasadizoak kontatzen ditu.

### Transkripzioa

-Soldaduskara nora joan zinen?

-Donostiaa.

-Zenbat urtekin?

-Ba jun nitzen, urte terdi ein nun nik soldauskan. Jun nitzen millata beratzirehun da berrogeita hamalauen, 1954, marzon eta etorri nitzen urte terdi einda zean, 1955.

-Donostin egin zendun?

-Bai. Ordun soldauskara jun nitzenen kanpamentua ein genun, ezautzen dezu zuk Alto de Orio? Bueno, Alto de Orion dao kruze bat, bat Aiara juden da, karretera zaharren, e, la 634, eta bestea dijo Zarautzera. Ta hantxe Aia biden han genduzken bakarrakoiak eta han ein gendun kanpamentue. Osea ke, han ikasi gendun período de instrucción esaten zaiona. Gero banderea jurau genun Zarauzko plaian. Eta bueno, gero handik, nik eztakit tontoa izan nitzen edo ze nitzen; nik neuken ordun izeba monja bat Donostin, nere ama zanan ahizpa bat, eta zan maistrea, monjea baiña maistrea izatez, eta ematen zien eskolea kapitan baten alabai, bi alaba edo eztakit ze zeuzken, ta harek esan zin nei: "Oye, Patxi", nere izeba horrek euskeraz gutxi eitten zun zeatio ibillita zeon hemendik kanpo. Salamankan eta Santanderren eta Asturiasen eta abar. Eta gero Jesuitinas edo hoietakoa, Hijas de Jesús; Tolosan estazioan jetxi ta ezkerretaa; hoitakoa zan. Eta harek esan zin: "Oye, yo si quieres esto y lo otro, por aquí, por allá. Te podía echar una mano". "Ba, voy a intentar coger un destino". Zeatio aurrena kabo ein nahi zien eta enon nahi, eta gero destino bat hartu nun, atera zien zea batzuk eta. Han garajen egon nitzen

mekaniko bezela. Aurrena ni bialdu nittuen ni neon kuartel hortako, soldauskako guzik giñen Tropas de Montaña, eta ni neon esquiadores-escaladores. Eta gero hortikan behera jetxi eta ibili nitzen ba denboraldi baten mendin. Mendingo ibiltzen giñen eitten ibillaldik, "patrullas" deitzen zitzaion; eskalatzen, eskiatzen: "esquí de fondo", e, ez oain ibiltzen dan bezelako zeatan... Esquí de fondo ba goitik behera hasten baldin bazea jo ta hanka hausi edo holakon batzuk. Eta izan zan nik oaindik ezautu dedan neguik gogorra. Zuk aditzera badezu hemen nola piñuk eta nola erre zien-da? Ez.

-Ze urtetan hori?

-55, 54-55. Ordun ein zuen hemen karretera jeneraleko tunela. Eta bueno, ni han egon nitzen soldauskan da, bueno, gero esan dizudana, hartu nun destino bat garajen eta oso gustoa egon nitzen. Han ein nittun zea batzuk, ikastaro batzuk, kursillo batzuk eta abar, eta gero ibilli nitzen ba erakusten zera, militarrai baiño izarrak zeukenai, e. Mekanikak eta bai. Ein nun un cursillo bat garai Arias [Pack?] izena zona garai hartan hiru hillabetekoa eta ordun ikasi nun automobille dana nola zan, zer zan-da. Gero hemendik CAFetik ia nahiz ez izan igual beste lantegi bat puxkat [...], eta hola. Eta gero egon nitzenen garajen ba bueno ez nitzen ia eskiatzera ta juten, baizik e jun behar baldin bazan zerbaittea arreglatzera edo hola ere baita. Baiño neekin egon zienak, eta ni're jun nitzen behin harutza, etortzen zien "Ordenes de Capitanía", eta "Hay que ir a hacer patrullas" o "hay que ir a hacer escalada" o "hay que hacer no se qué". Eta izan nintzen behin Burgosen, Cubillo del Campo izena [zun] herri baten, da han ibilli ginen zeak eitten, maniobrak, "Maniobras militares". Eta bueno, handikan etorri eta geo jun giñen beiz'e Peñas de Aia, han ibilli giñen beiz'e pixkaten, eta behiñ etorri giñen oiñez Peñas de Aiatik Atauna. Mendiz, gauzez. Hor zeren gero konboiek etorrira, kamionak eta, kamionetan kargau eta Donostira.

-Biajetxo.

-Bai, baño hirurogein bat kilometro edo hola eingo giñuzen gauen; ohittuta geunden zeatio egunero-egunero-egunero ibiltzen giñen.

## 9. Soldadutzan jatekoa etxetik eraman behar

- **Erref:** ORD-037/011
- **Iraupena:** 0:05:22. **Hasi:** 00:26:58. **Bukatu:** 00:32:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

### Laburpena:

<p>Soldadutzan ez zuten etxera bueltatzeko baimenik izaten. "Maki"en aipamena egiten du. Uniformatuta ibiltzen ziren. Donostian zegoenean asteburuan etxera bueltatzen zen eta etxetik eramaten zuen jana, bertakoa jan ezina zelako.</p>

### Transkripzioa

- Eta gero ba bueno, hori soldauskea bukatu nun eta etxea.

- Permisorik etxera etortzeko?

- Permisoik ez gendun ofiziala esaten dana, gaur egunen esaten da hillabeteko etxea etorri da ta, ez. Guk ez genun izan. Eta zeatik ez genun izan? Ba etaa zan ordena ba makik sortu ziela, guk ez genekiun zer zan maki ta zer zan jesukristoik'e, eta ordun makin emen tzien ba komunistan aldeko jende bat gerran ibilli eta ihas ein eta bestalden zeren, Iparralden,

mugan edo eztakit nun zeren. Eta ordun hortakon batzuk harrapatu zittuen hor frontieran. Eta ez giñuzten utzi etortzen zeatikan jendea behar tzuen hautza eamateko, ni enitzen jun, nik destinoa nola nauken ba. Ni juten nitzen hautza, baiño jun eta etorri. Eta ordun ba atzeratu zizuen guri lau hillabete gauza horregatik. Eta harrapau zittuen maki batzuk, armauta ibiltzen zien eta [zeuken] beldurre ba asalton bat joko ote zuen kuartelen batea edo holako gauzan bat.

- Soldauskan uniformauta?

- Bai, goizetik gauea. Ni etortzen nitzen ba asteburun etxea Donostin negonen. Oain, baldin baneon hautza junda [...], asteburun etxea. Jana ematen ziguen parregarrie.

- Goseik pasatu zendun?

- Gosea ez. Ez nun goseik pasatzen zeatio etxetik eamaten nun jana. Nei amak jartzen zin asteako morrala, erropea garbittu eta ordun ba gehienak eitten genun berdiñe, amak jartzen zin nei holako ogi haunditako bat, borobille, eta jartzen zian ba igual serrada batzuk gaiñetik pipar batzuk jarrita, eta gero haren gaiñen ba tortilla bat patatakoa edo urdaiazpikokin eo holako zea bat einda. Eta bueno, handik pixkat jan eta gero amak beste diru pixkat ematen bazin ba aldin behin, aldin behin eitten genun ba o bokadillon bat jan kanpon o ba juten giñen arraie, sardiña ta antxoa ta zan garaian bagenduzken puerton ezaun batzuk ta juten giñen hautza eta ematen ziun baldekara bat sardiñaz beteta. Angulak'e bai, e. Baldea goraiño beteta.

- Merkea zan orduan angula?

- Angulak ni soldauxkan eon nitzenen balio zon hemen, Frantzin merkego zala esaten zuen baiño, hamabost duro, "75 pesetas el kilo". Baiño ikaragarri galestie zan, ikaragarri galesti garai hartarako. Gero pixkan-pixkana-baja [...], baiño jaten giñuzen kristonak, e.

- Eta soldauskako jatekoa txarra.

- Txarra. Nik gaiñea izan nun suerte txar bat egun baten makarraoiak jaten ai giñen eta atara ziaten halakoxe mozorro bat makarroi baten barrun bel-bel-beltza, bota nittun neuzken guzik eta gero bolara baten enitzen bazkaltzea juten. Afarie ez genun behiñ'e eitten zean, komedoren, zeatio etzeon jateik, goizen sobratzen zan ematen zizuen gauen. Porejemplo, kanpapentun eon giñen eskiatzen eta abar, ematen zien jeneralen egunero patatea, botatzen zien piparautse edo gero txorixo muttur batzuk moztuta auskalo nun eindakok, eta gero ardoa. Ardoa ze ardo zan? Ba zeuzken zaku batzuk, hola ikatz zakuk bezelakok, hauts beltz bat, eta hura botatzen zuen ontzi batea, ontzi hortan zeon elurre, elur-ura urtu, urik'e kasik ez genduken, eta ur ura ia urtuta jartzen zanen botatzen zuen hauts hori. Eta ordun hura nahastu ta hura edaten genun. Esaten zuen que era mahatsan azala zeatuta zala. Baiño parregarri txarra. Ta ordun ba han eon giñenen oso gaizki zeatio jende asko, pilla bat, pulmonikin, beste batzuk txongatilla hezurra hautsita, beste batzuk belaune hausita, eta ematen zizuen beroa pixkat eukitzeko koñak botilla bat bakoitzei egunen. Pentsa zazu, ardoa halakoa baldin bazan koñak ze izengo zan. Ba han lo eitten gendun bi kaballete burnizkok holakoxe zabalerakok, da hiru ohol egurre ta gaiñen koltxoneta bat lastokin. Eta, klaro eskiatzera juten giñenen busti eitten giñen eta bustita etorri ta jartzen genun ba erropa sekatzeko ez genduken ezerre eta erropea azpin jarri, haren azpin, eta guk baldin bagenun beroa harekin sekau ta hurrengo egunen berriz'e hura jazten genun.

- Bazenituen hemengo lagunak?

- Bai. Hemengok neuzken nik, asko ez, e; baneuzken bat, bi, hiru lagun. Eta nik etortzeik ez baldin banun ba bueno, haiekin bialtzen nun erropea, amak garbittu ta eta beiz'e eamaten zin, edo haitakon batek ezin bazun ba nik eitten nun hori eta hola ibiltzen giñen.

- Donostiatik hona trenean etortzen zinen?
- Bai, Donostitik honea trenen.
- Eta soldauxkan egin zenituen urte eta erdi?
- Urte t´erdi egon nitzen soldauskan, bai.

## 10. Hiru jostun mota zeuden

- **Erref:** ORD-037/013
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:33:00. **Bukatu:** 00:35:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

### Laburpena:

<p>Ordiziako azokan arropa asko saltzen zen. Garai hartan, hiru jostun mota zeuden; izendatu egiten ditu. Lanera petoa jantzita eta alpargatekin joaten ziren.</p>

### Transkripzioa

- Ordizira puxkat bueltatuta, Ordiziko feria eta ezagutu zenituen?
- Bai, bai. Lokepasa ke oain erabateko desberdiñe da. Garai hartan ferie etortzen zien feriaa, oaiñ'e bai eta, ezta, baiño oaiñ etortzen da kanpoko fruteroa asko, ezta. Garai hartan etzan fruteroik eta kasi etortzen. Oain fruterok daren alderdi hoitan, inguru hoitan egoten zien ordun, ordun salzen zan asko erropea. Erropea, bai, eta jendek erosten zon asko. Izarak, etxeko gauzea ta behintzet ikaragarri. Eta gero nola ba eztan, jantzi eitten zan beste modu batea. Ordizin trajea etzan oain bezela jun da erosten, dana sastrek eitten zuen. Emakumei modistak, da hiru klaseko zeak zeren, jostunek, batzuk zien sastrek, beste batzuk zien modistak eta gero beste batzuk zeren "pantaleras y camiseras". Bai, bai, berezik, e. Eta ordun, esaten dizudana, hori eitten zan modu hortara, eta gaiñea eguneroko erropea ta hori dana plazan erosten zon jendek. Gu lanea juten giñen buzokin. Petoa bakizu zer dan? Bi motatakok zeren, petoa eta osokoa. Nik petoa're ibili non, petoa udan freskoago ibiltzeko ta abar, baiño negun egunero lanea juten giñen. Eta aperketakin. Eta juten bagiñen hautza eta eurie eitten bazon ba hankak bustita etxea.
- Abarkarik eta ez.
- Ez. Baserritarrak bai baiño gu kaletarrak ez. Bazan ordun, izena enaiz akordatzen, bazan aparketen gaiñetik ibiltzen zan bat, zapatillan estilokoa, haundigok zien, eta ordun aparketak, gu gaztek ez giñutzen ibiltzen baiño gure adiñakok danak eukitzen zittuen han pare bat, baezpada ere gertatzen baldin bazan haik jartzen zittuen; gu hankak bustita etortzen giñen.

## 11. Etxean untxi, txerri eta ahuntzak

- **Erref:** ORD-037/014
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:35:00. **Bukatu:** 00:36:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

**Laburpena:**

<p>Patxiren etxean, San Bartolome auzoan, untxi, ahuntz eta txerriak zituzten. Etxe azpian ikuilua zuten eta baratzea ere bazuten. Artoa eta babarruna egiten zuten eta ama joaten zen azokara haiek saltzera.</p>

**12. Aita itsutu zitzaionekoa**

- **Erref:** ORD-037/015
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:36:40. **Bukatu:** 00:37:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena:**

Gerra garaian Caf-en bonbak egiten zituztenean bonba bat lehertu eta aita itsutu zitzaionekoa kontatzen du.

**13. Azokako "rekarderak"**

- **Erref:** ORD-037/016
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:37:35. **Bukatu:** 00:40:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

**Laburpena:**

<p>Iluntzean plazara joaten zen amari saldu beharreko zakuak uztera. "Rekarderak" trenez joaten ziren azokara Tolosa eta Goierri ingurutik produktuak eroatera gero beraiek saltzeko.</p>

**14. Txerri-hiltze eguna**

- **Erref:** ORD-037/018
- **Iraupena:** 0:05:20. **Hasi:** 00:41:18. **Bukatu:** 00:46:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

**Laburpena:**

<p>Etxean txerriak eta ahuntzak hazten zituzten eta kumeak plazara saltzen zituzten. Txerria hiltzera harakin bat joaten zitzaien etxera eta festa egiten zuten. Amak eta Patxiren izebak egiten zituzten txorizo eta odolkiak. Txorizo ezberdinak izendatzen ditu. Gero ohitura zen auzoko etxeetara banatzea.</p>

Txerriak freskeran kontserbatzen zuten gaztetan eta piper-hautsa emanda jartzen zituzten lehortzen.</p>

## 15. Otorduetako jakiak

- **Erref:** ORD-037/019
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:46:38. **Bukatu:** 00:48:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

### Laburpena:

<p>Patxiren amak taloak egiten zituen eta gosaltzeko huraxe jaten zuten. Otorduetan barazkiak, zopa eta potajea jaten zituzten eta asteburuetan arroza, xerra eta arraina izaten ziren jaki berezia. Arrain ezberdinak izendatzen ditu; kaleko saltzaileek saltzen zuten arraina.</p>

## 16. Estraperlora bizikletaz Nafarroara

- **Erref:** ORD-037/020
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:48:53. **Bukatu:** 00:52:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserría » Baserriko lanak » Errota

### Laburpena:

<p>Ordiziako errotak izendatzen ditu. Guardia zibilak egoten ziren zain eta haiek irinaren hainbesteko bat kentzen zuten. Estraperlo garaian Patxiren aita bizikletaz joaten zen Nafarroara patata eta beste gai batzuk ekartzera. Estraperloan hartutako jeneroa saldu egiten zuten. Errazionamendu garaian denda guztiek kartila bat izaten zuten eta etxean bizi zen jende kopuruaren arabera hainbesteko kopuru bat ematen zieten.</p>

## 17. Ura ur-putzutik ateratzen zuten

- **Erref:** ORD-037/021
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:52:24. **Bukatu:** 00:55:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

### Laburpena:

Argia beti izan zuten etxean eta ura lortzeko ur putzua zuten etxe ondoan. Lau garbitoki zeuden Ordizian eta han garbitzen zituzten emakumeek arropak. Erreka zikindu zenean sortutako gaixotasun baten aipamena egiten du eta arreba gaixotu zenekoa kontatzen du.

## 18. Meza eta bezperak derrigorrezkoak

- **Erref:** ORD-037/024
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:57:14. **Bukatu:** 00:58:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

### Laburpena:

<p>Mezara eta igandetako bezperetara joatea derrigorra izaten zen. Ama oso elizkoia zen; etxean izeba lekaiame asko zituzten. Arrosarioa jatorduen ondoren errezatzen zuten egunero. Tximistaren aurka ateetan gurutzeak eta erramua jarri ohi zituzten.</p>

## 19. 10 urte zituela etxea erre zitzaien

- **Erref:** ORD-037/025
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:58:50. **Bukatu:** 01:00:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

### Laburpena:

10 urte inguru zituela etxea erre zitzaienekoa kontatzen du.

## 20. Mairuak iritsi zirenekoa

- **Erref:** ORD-038/002
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:00:22. **Bukatu:** 00:02:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

### Laburpena:

Gerra zibilean, mairuak sartu zirenekoa gogoratzen du. Zer janzkera zuten mairuek, zer egiten zuten, nola bizi ziren, eta aitak nola lortu zuen salbatzea kontatzen du.

### Transkripzioa

- Ni akordatzen naiz'e baita hemen gerrako garaikoak'e bai, morok eta egoten zien garaikok.  
- Hoi galdetu behar nizun: gerra denbora...  
- Nik hiru urte neuzken, honea sartu zianen morok, ta ni akordatzen naiz, gure etxe hori akribillau in zuen tiroz. Ba moro horik etorri zienen honea, ba moron trajekin, gehienak kriston bigotea akordatzen naiz nola zeukeen, ta goitik burutik sartuta eukitzen zuen traste bat gero atzea txintxilika zeon bat, pantaloiak hau honeaiño aillatzen zan bat, hemendik behera dana hola lotuta dana, ta akordatzen naiz fusilla nola zan, ta gure etxe hortan, zelai bat zeon, eta zelai horretik trenbidea bitarten zeon dana sasik

hartuta. Ta akordatzen naiz nola juten nintzen hauntza kaka ittea, pixa ittea, eta ordun guk alde in behar izan gendun. Ni txiki nintzena ni beson, hiru urte neuzken, ta nere arrebak'e lau urte, ez sei, nik hiru, bost urte zaharrenak, bi urte zaharragoa da. Ta akordatzen naiz nola jetsi giñen goitik behera, ni uste det amak eskutik, eta nere arreba aittek. Eta sartu zitzakun milizianok esaten zien ordun, eta nere aitei akordatzen naiz nola ordun ba izara puskan bat o hartu zuen, ta trapu zuri batekin ta "no, no, nosotros somos gente de paz" esan zion nere amak, eta ordun nere aittek zerbait esan emen zion, gero ez dakit zer esan zion. Eta nere aitta zeon gerran Afrikan bi aldiz eonda, bere garaian gerra tokau zan Afrikako Espaiñikin, Marruekosko hoi zeatu zonen, eta esan zien "yo bastante he estau en la guerra de África", ta ordun akordatzen naiz nola tipo batek holaxen jarri zion, ez dakit zer zan ordun armaea, izango zan mosketoia, armakin. Eta kasualidade momentu hartan sartu zan kapitan bat, ta harek holaxe jo zion, pistola bat ikusi zion eskun zaukala, ta jo zion hemen yo! Eta harek salbau zun. Bestela nere aitta garbittu ingo zan. Eta atea giñan, lau famili genden, ta lau familik, han atea giñan.

## 21. Gerra eta gosea

- **Erref:** ORD-038/003
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:02:25. **Bukatu:** 00:03:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

### Laburpena:

Bonbak ezagutu zituzten. Gose handia pasa zuten kalekoek, baina baserritarrek ez. Herrian izan ziren pertsona gizen bakanak aipatzen ditu. Zer jaten zuten azaltzen du.

## 22. Ordiziako fabrika zaharrak

- **Erref:** ORD-038/004
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:03:49. **Bukatu:** 00:05:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Gozogintza

### Laburpena:

Ordiziako fabrika zaharrak aipatzen ditu: altzari-fabrikak, xaboi-fabrika, txokolategia, aitzogintza-fabrika... Sagardotegi bat aipatzen du.

## 23. Ordiziako denda txiki zaharrak

- **Erref:** ORD-038/005
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:05:49. **Bukatu:** 00:07:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

**Laburpena:**

Ordiziako denda zaharrak asko eta txikiak zirela dio. Banan bana aipatzen ditu: arropa-dendak, etxeko arroparako dendak, fruta-dendak, okindegiak, bizartegiak, jostunak... Arropan zuloa egitean, nola moldatzen ziren aipatzen du.

**24. Taberna eta sagardotegi zaharrak**

- **Erref:** ORD-038/006
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:07:17. **Bukatu:** 00:08:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

**Laburpena:**

Taberna zahar asko eta txikiak izan zirela dio. Lehen sagardotegi ugari zeudela dio, eta banan bana aipatzen ditu.

**25. Sagardotegiko ohiturak lehen**

- **Erref:** ORD-038/007
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:08:05. **Bukatu:** 00:09:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

**Laburpena:**

Lehen sagardotegira gizonak joaten ziren, eta etxetik eramaten zuten jatekoa.

**26. Tabernetako ohiturak lehen**

- **Erref:** ORD-038/008
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:09:09. **Bukatu:** 00:10:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

**Laburpena:**

<p>Ez zegoen ohiturarik tabernan jateko, orduan apopiloek bakarrik jaten zuten bertan. 60ko hamarkadan hasi zen hori aldatzen. Emakumeak ez ziren inoiz sartzen tabernatan.</p>

## 27. Tabakoa nola erretzen zen

- **Erref:** ORD-038/009
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:10:13. **Bukatu:** 00:11:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

### Laburpena:

<p>Gizon gehienek erretzen zuten zigarroa lehen. Bildutako zigarroak erretzen zituzten, eta paperik ez zegoenean, pipa erretzen zuten. Baina pipa zaharrek normalean.</p>

## 28. Kuadrillako giroa

- **Erref:** ORD-038/010
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:11:05. **Bukatu:** 00:13:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Aisia » Kirola » Futbola

### Laburpena:

<p>Kuadrillako giroaz hitz egiten du. Astean zehar ez ziren ikusten. Asteburutan elkartzen ziren. Zinera edo futbolera joaten ziren, "Puerta del Sol"en elkartzen ziren 50 bat mutil. Inguruko herrietara joaten ziren.</p>

## 29. Erromeriak eta bertako giroa

- **Erref:** ORD-038/011
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:13:08. **Bukatu:** 00:14:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Kultura » Dantza
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera

### Laburpena:

Ordizian egiten ziren erromeria batzuk aipatzen ditu. Dantza egitea bazegoen, baina ez askatasunez, bestela (neskak behintzat) kongregaziotik botatzen zituzten.

## 30. Autoa eta gidabaimena

- **Erref:** ORD-038/013
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:14:50. **Bukatu:** 00:17:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

**Laburpena:**

Normalean jendea bizikletaz ibiltzen zen. Berak autoa erosi zuenean, lehendik beste 3 auto bakarrik zeuden auzoan. Gidabaimena Donostian atera zuen, Arakaman. Zaila zen orduan gidabaimena ateratzea, Donostiako kaleak ondo ezagutu behar baitziren horretarako. Gidabaimena ateratzeko zer egin zuen azaltzen du. Autoa erosteko 50.000 pezeta ordaindu zuen.

**31. Orduko txanponak**

- **Erref:** ORD-038/014
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:17:03. **Bukatu:** 00:18:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

**Laburpena:**

<p>Ze diru erabiltzen zuten azaltzen du, zenbateko txanponak zeuden. Txakur txiki eta txakur handiei buruz hitz egiten du.</p>

**32. Lehengo ezkontzak eta bere bizimodua ezkondu ostean**

- **Erref:** ORD-038/015
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:18:21. **Bukatu:** 00:19:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

**Laburpena:**

Noiz eta non ezkondu zen azaltzen du. Orduko ezkontzak oraingoan antzekoak ziren, baina jende gutxiago joaten zen (familiarrekoak bakarrik). Eztei-bidaian Andaluziara joan ziren. 2 seme izan dituzte.

**33. Ordiziako euskara eta euskara Ordizian**

- **Erref:** ORD-038/016
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:19:51. **Bukatu:** 00:21:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak
- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

Ordizian jende gehiagok daki euskara, baina kalean erdaraz hitz egiten da hala ere. Lehen kalean eta etxean euskaraz baina jende artean erdaraz, eta eskolan ere erdaraz. Berak zuka egin izan du beti. Aitak berari hika. Ordiziako euskarak eta Ataungoak badute diferentzia txiki bat.

---

Maiza Urrestarazu, Patxi | ahotsak.eus Orr.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-12

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com